idazkaritza-kontuhartzaileetza

2025/12/18an EGINDAKO Ezohiko Osoko bilkura.

SESIÓN Extraordinaria DEL Pleno DE LA CORPORACIÓN. Día 18/12/2025.

BERTARATUAK- ASISTENTES

Alkate-Udalburua

Edorta Zubizarreta Alegria

Zinegotziak

Alaitz Orueta Arrese
Irati Iglesias Pozo
Mikel Luengo Gabarain
Dorleta Sologaistoa Aguiriano
Xabier Uriarte Iñurrategi
Maite Uribe Beristain
Puri Regidor Varela
Antonio Regaño Sajeras
Josu Ezkurdia Santamaria

Idazkaria

Eskoriatzan, 2025/12/18an, arratsaldeko 18:00etan, Osoko Bilkura aretoan, Edorta Zubizarreta Alegria alkate jauna buru dela eta goian aipatutakoak bertan direla bildu da Udalbatzarra ezohiko bilkuran, gai zerrendan zehaztutako gaiei buruz hitz egiteko. Ez da etorri Edorta Barandiaran Garcia.

En Eskoriatza, siendo las 18:00 horas del día 18/12/2025, en el Salón de Plenos de la Casa de Consistorial quedó constituido el Pleno de la Corporación en sesión Extraordinaria bajo la Presidencia del Señor Alcalde- Presidente Edorta Zubizarreta Alegria, con la asistencia de los señores que arriba se expresan para tratar de los asuntos reseñados dentro del Orden del Día. No asiste Edorta Barandiaran García.

ESKU1eca0f4c-2c2e-4e38-9a82-a78c02a4b0e8

## 1.- AURREKO BILKURETAKO AKTAK ONARTZEA.

2025/12/10ean egindako osoko bilkurako akta onartu da.

## 2.- ALKATEAREN ADIERAZPENAK.

2025ko abenduaren 10era arte Alkateak hartutako erabakien berri eman da.

Berariaz eman da 2025-KALD-000026-00 kreditu aldaketa espedientea onartzeko erabakiaren berri.

## 3.- 2026ko EKITALDIKO AURREKONTUA ONARTZEA.

Bertaratutako guztiek aldez aurretik izan dute 2026ko aurrekontuari buruz Antolaketa eta Ogasun batzorde informatzaileak, onar dadin, aurkeztu duen proposamena.
Era berean, Mikel Luengo zinegotziak proposamen horri aurkeztutako zuzenketak ere izan dituzte, honako hauek, hain zuzen ere:

- *Lehenengo zuzenketa.*
- *"Erreka garbiketa" partida 1.000 eurotan murriztea.*
- *1.000 euroko partida bat sortzea ESNARGIri dirulaguntza izendun bat emateko*
- *Bigarren eta hirugarren zuzenketak:*
- *"EKINTZA KULTURALAK" partida 10.000 eurotan murriztea.*
- *5.000 euroko partida bat sortzea KOLDOTXOri dirulaguntza izendun bat emateko Luis Ezeiza Herri Eskolaren 55. urteurrena ospatzeko antolatzen dituen jarduerak finantzatzen laguntzeko.*
- *5.000 euroko partida bat sortzea HUHEZIri dirulaguntza izendun bat emateko HUHEZIren 50. urteurrena ospatzeko antolatzen dituzten jarduerak finantzatzen laguntzeko.*

Zuzenketak bozkatu dira, eta EAJ/PNVko 4 zinegotziak abstenituta eta EH BILDUko 6 zinegotziek alde bozkatuta, hiru zuzenketak onartzen dira.

Ondoren, Antolaketa eta Ogasun batzorde informatzaileak egindako proposamena bozkatu da, onartutako 3 zuzenketek eragindako aldaketekin.

ESKU1eca0f4c-2c2e-4e38-9a82-a78c02a4b0e8

Bozketa eginda, EAJ/PNVko 4 zinegotziak abstenituta eta EH BILDUko bertaratutako 6 zinegotziek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** Hasiera batean onartzea 6.603.082,77 €-ko udal aurrekontua.

**Bigarrena.-** 2025eko aurrekontu orokorra osatzen duen gainontzeko dokumentazioa hasiera batean onartzea, apirilaren 15eko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuz (LED) onartutako Testu Bategineko 445. artikuluan ezarritakoaren arabera.

**Hirugarrena.-** Erreklamazioak edo iradokizunak jartzeko hamabost egunez jendaurrean egoteko epean inolako erreklamaziorik ez balego, onarpena behin betikotzat jotzea.

- Josu Ezkurdiaren boto azalpena:

Josu Ezkurdiak adierazi du bere taldea abstenitu egingo dela bi arrazoirengatik. Bat, dio, iazkoa bezala, aurkeztutako aurrekontua eskasa delako bere taldearen iritziz, eta proposatzen diren inbertsioak ez direlako nahikoak. Adierazi du, bere taldeak zenbait inbertsio proposatu zituela batzordean: Luis Ezeizaren ingurua urbanizatzea, Intxaurtxuetako sarreran hirigintza-jarduketa egitea, klima-aldaketaren aurrean jarduteko plana... Guzti horietatik, esan du, jarduketa pare bat onartu dira, eta gainerakoei dagokienez, esan joango garela ikusten; eta, erakutsitako jarrera ikusita, esan du, azkenean, aurkako botoa eman beharrean, abstenitu egingo gara.

Alkateak erantzun dio, legezko kontuengatik ezin dituztela nahi adina inbertsio egin, eta guztien laguntza espero duela onartutako proposamenak gauzatu ahal izateko.

**<u>4.- UDAL BRIGADARI ATXIKITAKO LANPOSTUEI HIZKUNTZ ESKAKIZUN BERRIA IZENDATZEA.</u>**

Antolaketa eta Ogasun batzorde informatzaileak egindako diktamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**<u>Lehenengoa.-</u>** Ondorengo lanpostuei ondoren ere esango diren derrigorrezko hizkuntz eskakizunak eta derrigortasun datak esleitzea:

| Lanpostua | Irakurmena eta idazmena | Entzumena eta mintzamena | Derrigortasun data |
|---|---|---|---|
| **Eginbehar anitzetako A langilea** | B1 | B2 | ---------------- |
| **Eginbehar anitzetako B langilea** | B1 | B2 | 2025/12/18 |
| **A Peoi lurperatzailea** | B1 | B2 | |

ESKU1eca0f4c-2c2e-4e38-9a82-a78c02a4b0e8

| | | | |
|---|---|---|---|
| **B Peoi lurperatzailea** | B1 | B2 | |

**5.- 2026rako LANPOSTU ZERRENDA ETA PLANTILLA ORGANIKOA ONARTZEA.**

2026ko ekitaldiko plantilla organikorako eta lanpostuen zerrendarako proposamena aztertu dira.

Horiek ekonomia- eta antolaketa-errealitatearen azpian dagoen irudi fidela ematen dute.

Lanpostuen zerrendako aldaketa esanguratsuenak honako hauek dira:

- Obretako brigadari atxikitako lanpostuen (eginbehar anitzetako A eta B langileak eta A eta B lurperatzaile-peoiak) hizkuntz eskakizuna eta derrigortasun-data Udaleko Euskara Zerbitzuak eta Eusko Jaurlaritzako Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzak egindako txostenera egokitzea.
- Kultura teknikari eta gazteria eta berdintasun teknikari lanpostuak betetzeko eskatzen den titulazioa aldatzea. Kontuan izanik lanpostu horien eginkizunak ez direla karrera baten helburu berezia, eskatu beharreko titulazio generikoa izatea: gradua, ingeniari teknikoa, unibertsitateko diplomaduna, 3. mailako lanbide-heziketa edo baliokidea.

Plantilla onartzea eta, ondorioz, baita bertan egindako aldaketak ere, Udalbatzarrari dagokio, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 legearen (TAOAL) 22. artikuluan ezarritakoaren arabera, eta eskumen hori ezin da eskuordetu (TAOALeko 22.4. artikulua).

Plantilla organikoaren onarpenak udal-aurrekontuaren onarpenaren izapide berak bete behar ditu, Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 90.1 artikuluan aurreikusitakoari jarraiki (TAOAL), Toki Araubidearen arloan indarrean dauden Lege Xedapenen Testu Bategina onartzen duen apirilaren 18ko 781/1986 Legegintzako Errege Dekretuaren 126.3 artikuluan xedatutakoarekin bat.

Antolaketa eta Ogasun batzorde informatzaileak egindako diktamenaren arabera, EAJ/PNVko bertaratutako 4 zinegotziak abstenituta, eta EH BILDUko bertaratutako 6 zinegotziek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

LEHENENGOA.- 2026ko ekitaldiko plantilla organiko eta lanpostuen zerrenda (1. eta 2. eranskinak) hasiera batean onartzea.

BIGARRENA.- Erabakia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzea 15 egun baliodunez, interesdunek aztertzeko aukera izan dezaten eta, hala iritziz gero, erreklamazioak jartzeko Udalbatzarrari. Halaber, Udalaren webgunean argitaratuko da. Adierazitako epean erreklamaziorik edo alegaziorik aurkezten ez bada, ordura arte hasierako erabakia behin betiko hartu dela ulertuko da, eta Udalbatzarrak berariazko beste erabakirik hartu behar izan gabe.

**6.- ESKORIATZAKO UDALAREN TITULARITATEKO HAINBAT UDAL ERAIKIN ETA LOKAL GARBITZEKO ZERBITZUA EMATEKO KONTRATUA LUZATZEA.**

ESKU1eca0f4c-2c2e-4e38-9a82-a78c02a4b0e8

eskoriatzako udala

**idazkaritza-kontuhartzailetza**

Udalbatzarrak, 2025eko otsailaren 27an egindako bilkuran, Eskoriatzako Udalaren titularitateko hainbat eraikin eta lokal garbitzeko zerbitzua emateko kontratua HEMEN GARBIKETAK S.L.U. enpresari esleitzea erabaki zuen ondoren adieraziko den esleipen prezioan (BEZ barne). Kontratua baldintza administratibo partikularretan ezarritako gainerako baldintzei eta kontratistak bere proposamenean egindako zehaztasunei lotuta egongo da.

Prezioa:

DERRIGORREZKO ZERBITZUAK: 218.920,70 € urteko (BEZik gabe), gehi BEZaren % 21ari dagozkion 45.973,35 €

Zenbateko hori, BEZa gabe, honela banakatzen da eraikinka:

| | |
|---|---|
| Luis Ezeiza Herri Eskola | 41.427,90 |
| Haurreskola (biblioteka barne) | 15.906,00 |
| Kulunka Haurtzaindegia (eraikin oktogonala) | 16.629,00 |
| Ibarraundi Museoa | 10.802,83 |
| Zaldibar | 3.928,30 |
| Ludoteka | 6.000,90 |
| KIROLDEGIKO GARAJEAK | 771,20 |
| PILOTALEKUA | 12.212,68 |
| EPA | 2.422,05 |
| Elkarteen txokoa | 1.542,40 |
| Geltoki zaharra | 2.385,90 |
| Artxiboaren lokala | 289,20 |
| TORREBASOKO KOMUN PUBLIKOAK | 1.789,43 |
| MUSIKA ESKOLA | 4.892,30 |
| KULTUR ETXEA | 7.880,70 |
| UDALETXEA | 15.231,20 |
| LIBURUTEGIA | 8.880,85 |
| KIROLDEGIA | 65.927,87 |

AUKERAKO ZERBITZUAK: (BEZa gabe)

| ERAIKINA | URTEKO KOSTUA GUZTIRA |
|---|---|
| IBARRAUNDI MUSEOA | 4.048,80 |
| KIROLDEGIA | 13.471,90 |

Udal eraikinetan garbiketa bereziak egiteko aukerako lanak (BEZa gabe)

| ERAIKINA | ZERBITZUAREN KOSTUA |
|---|---|
| Ibarraundi | 72,30 |

ESKU1eca0f4c-2c2e-4e38-9a82-a78c02a4b0e8

| | |
|---|---|
| Zaldibar | 48,20 |
| Pilotalekua | 289,20 |
| Udal etxebizitzak (etxebizitzako) | 289,20 |
| Kultur etxea | 72,30 |

Kontratuaren iraupena URTEBETEKOA da 2026ko martxoaren 25etik kontatzen hasita, eta beraz, 2027ko martxoaren 24ra arte izango du indarraldia. Kontratua luzatzeari dagokionez, baldintza ekonomiko-administratiboen agirian ezarritakoa jarraituko da.

Baldintza administratibo partikularren agiriko 3. baldintzaren arabera, eta Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 29. artikuluan xedatutakoa kontuan harturik, kontratu honek URTEBETEKO iraupena izango du 2025eko martxoaren 25etik kontatzen hasita, eta beste 4 urtez luzatu ahal izango da, baina, kontratuak, guztira, ezingo du BOST URTE baino gehiago iraun. Luzapenak urtebetekoak izango dira eta berariaz erabaki beharko ditu kontratazio organoak. Derrigorrezkoak izango dira enpresariarentzat, betiere, kontratua amaitu baino bi hilabete lehenago abisatuz gero, eta ez bada gertatzen 2017ko SPKLren 29. artikuluaren 2. idatz-zatiaren azken paragrafoan jasotako egoera.

Lurralde eta Garapen Ekonomiko Jasangarriaren batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**LEHENENGOA.-** ESKORIATZAKO UDALAREN TITULARITATEKO HAINBAT UDAL ERAIKIN ETA LOKAL GARBITZEKO ZERBITZUA emateko Hemen Garbiketak S.L.U. enpresari esleitutako kontratua urtebetez luzatzea.

## 7.- DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOAREN 4/2025 ALDAKETA.

Udalbatzarrak, 2023ko abenduaren 21ean egindako bilkuran, Dirulaguntzen 2024-027 Plan Estrategikoa onartu zuen.

Plana onartuta, Udaleko hainbat arlok komenigarria ikusi dute planaren 2025-eranskinean jasotako aurreikuspenetako batzuk aldatzea LERRO ESTRATEGIKOETAKO dirulaguntza programa batzuen eremu subjektiboa edota objektiboa zabaltzeko.

Proposamenak ikusita, eta Kultura, Euskara, Gazteria eta Hezkuntza batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, Udalbatzarrak, aho batez, honako hau ERABAKI DU:

**LEHENENGOA.-** EUSKARA 5. LERRO ESTRATEGIKOAREN ondorengo dirulaguntza programari esleitutako dirua 530, 87 eurotan handitzea, eta, beraz, honela geldituko litzateke:

A) PROGRAMAREN DESKRIBAPENA: euskara ikasteko dirulaguntzak.

HARTZAILEAK: euskara ikasteko euskaltegian edo barnetegian matrikulatuta egon eta Eskoriatzan erroldatutako pertsonak.

ESKU1eca0f4c-2c2e-4e38-9a82-a78c02a4b0e8

HELBURUA: euskara ikastaroak finantzatzeko dirulaguntzak ematea.

LORTU GURA DENA: euskararen ezagutza sustatzea.

DIRULAGUNTZA MOTA: norgehiagoka.

AURREIKUSITAKO KOSTUA: 2.230,87 €

FINANTZIAZIOA: 0400.480.335.00.01

**8.- ONGIZATE EMOZIONALA SUSTATZEKO ETA ADIKZIOEN PREBENTZIORAKO 2026-2029 TOKIKO PLANAREN (ARETXABALETA-ESKORIATZA) HASIERAKO ONARPENA ETA JENDAURREAN JARTZEA.**

Gizarte Zerbitzuak eta Kirola batzorde informatzaileak egindako diktamenarekin bat eginda, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiek alde bozkatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

**Lehenengoa.-** Hasiera batean ONARTZEA ongizate emozionala sustatzeko eta adikzioen prebentziorako 2026-2029 tokiko plana (Aretxabaleta-Eskoriatza).

**Bigarrena.-** Jendaurrean jartzeko 30 eguneko epea irekitzea, iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu eta hurrengo egunetik hasita, edozein pertsona fisikok edo juridikok espedientea aztertu ahal izan dezan Udaleko gizarte-zerbitzuetan, eta, hala badagokio, egoki iritzitako alegazioak eta iradokizunak aurkez ditzan.

Planari inolako alegaziorik edo iradokizunik aurkeztu ezean, behin betiko onartutzat joko da beste erabakirik hartu behar izan gabe.

**9.- GALDE-ESKEAK.**

Ez da egon.

**Eta beste gairik ez dagoenez, 18:12ean amaitutzat ematen da bilera, eta bertan gertatutakoa, nik, Idazkariak, egiaztatzen dut.**

**1.-APROBACIÓN DEL ACTAS DE LA SESIONES ANTERIORES.**

Por encontrarla conforme es aprobada el acta de la sesión celebrada el 10/12/2025.

ESKU1eca0f4c-2c2e-4e38-9a82-a78c02a4b0e8

**2.- COMUNICACIONES DE LA ALCALDIA.**

Se da cuenta de las resoluciones dictadas hasta el día 10/12/2025.

De forma expresa se da cuenta de la Resolución aprobatoria del expediente 2025-KALD-000026-00 de modificación de créditos.

**3.- APROBACION DEL PRESUPUESTO DEL EJERCICIO 2026.**

Todos los presentes han dispuesto con antelación de la propuesta que del Presupuesto 2026 se eleva para su aprobación desde la Comisión Informativa de Organización y Hacienda. También han dispuesto de las enmiendas presentadas ante dicha propuesta por parte del concejal Mikel Luengo y que consisten en :

- *Primera enmienda;*
- *Disminuir en 1000 euros la partida de “erreka garbiketa”*
- *Crear una partida de 1000 euros para conceder una subvención nominativa a ESNARGI*
- *Segunda y tercera enmienda;*
- *Disminuir en 10.000 euros la partida “EKINTZAK KULTURALAK”*
- *Crear una partida de 5000 euros para conceder una subvención nominativa a KOLDOTXO para ayudar a financiar las actividades que organice para celebrar el 55 aniversario de Luis Ezeiza Herri Eskola*
- *Crear una partida de 5000 euros para conceder una subvención nominativa a HUHEZI para ayudar a financiar las actividades que organicen para celebrar el 50 aniversario de HUHEZI*

Se procede a votar las enmiendas , y con la abstención de los 4 concejales de EAJ/PNV y el voto a favor de los 6 concejales presentes de EH BILDU, son aprobadas las tres enmiendas.

ESKU1eca0f4c-2c2e-4e38-9a82-a78c02a4b0e8

A continuación se somete a votación la propuesta elevada desde la Comisión Informativa de Organización y Hacienda con las modificaciones derivadas de las 3 enmiendas aprobadas.

Realizada la votación, con la abstención de los 4 concejales de EAJ/PNV y el voto a favor de los 6 concejales presentes de EHBILDU, el Pleno ACUERDA:

**Primero.-** Aprobar inicialmente el Presupuesto municipal por importe de 6.603.082,77€

**Segundo.-** Aprobar inicialmente toda la documentación que integra el Presupuesto General para 2025, de conformidad con lo establecido en el art. 445 del Texto Refundido aprobado por R.D.L. 781/1986, del 15 de abril.

**Tercero.-** Entender elevada a definitiva su aprobación en el caso de que no se produjera reclamación alguna en el periodo de exposición pública, a los efectos de admitir reclamaciones y sugerencias, de quince días

- Explicación de voto por parte de Josu Ezkurida:

Josu Ezkurdia manifiesta que su grupo se va a abstener por dos razones. Una, dice, porque, al igual que el del año pasado, para su grupo el presupuesto que se presenta es escaso, las inversiones que se plantean son insuficientes. Señala que en la comisión su grupo ya propuso una serie de inversiones: urbanización del entorno de Luis Ezeiza, actuación a la entrada de Intxaurtxueta, plan de actuación ante el cambio climático,…De todo ello, dice, se han aprobado un par de actuaciones y respecto al resto se nos ha dicho que ya se irá viendo; y vista la actitud mostrada, finaliza diciendo, el lugar de votar en contra no abstendremos.

El Alcalde le responde que por cuestiones legales no pueden abordar todas las inversiones que quisieran y que espera contar con la colaboración de todos para llevar adelante las propuestas aprobadas.

## 4.- ASIGNACIÓN DE NUEVO PERFIL A LOS PUESTOS DE TRABAJO ADCRITOS A LA BRIGADA MUNICIPAL.

De conformidad con el dictamen elevado desde la Comisión Informativa de Organización y Hacienda y el voto favorable de todos los corporativos presentes, el Pleno ACUERDA:

**Primero:** Asignar a los siguientes puestos el perfil lingüístico preceptivo y fecha de preceptividad que a continuación se indica:

| Puesto de trabajo | Comprensión y expresión escrita | Comprensión y expresión oral | Fecha de preceptividad |
|---|---|---|---|

ESKU1eca0f4c-2c2e-4e38-9a82-a78c02a4b0e8

<table>
<tr><th></th><th></th><th></th><th></th></tr>
<tr><td>Operario de cometidos múltiples A</td><td>B1</td><td>B2</td><td>----------------</td></tr>
<tr><td>Operario de cometidos múltiples B</td><td>B1</td><td>B2</td><td rowspan="3">2025/12/18</td></tr>
<tr><td>Peón enterrador A</td><td>B1</td><td>B2</td></tr>
<tr><td>Peón enterrador B</td><td>B1</td><td>B2</td></tr>
</table>

## 5.- APROBACIÓN DE LA RELACIÓN DE PUESTOS DE TRABAJO Y PLANTILLA ORGANICA PARA 2026.

Vista la propuesta de la plantilla orgánica y la relación de puestos de trabajo correspondientes al ejercicio 2026.

Resultando que las mismas reproducen una imagen fiel de la realidad económica y organizativa subyacente.

Visto que los cambios más significativos en la relación de puestos de trabajo consisten en:

- Adecuar el perfil y la fecha de preceptividad de los puestos adscritos a la brigada de obras (Operario de cometidos múltiples A y B y Peón enterrador A y B) al informe emitido por el Servicio de Euskera del Ayuntamiento y por la Dirección de Normalización Lingüística de las Administraciones Públicas del Gobierno Vasco.
- Modificar la titulación exigida para ocupar los puestos de técnico/a de cultura y técnico/a de juventud e igualdad. Considerando que son puestos en los que su funciones no constituyen el objeto peculiar de una carrera , fijar como titulación exigida la de carácter genérico: Grado, Ingeniero Técnico , Diplomado Universitario, Formación Profesional de 3er grado o equivalente.

Considerando que la aprobación de la plantilla y de la relación de puestos de trabajo corresponde al Ayuntamiento Pleno, en virtud de lo previsto en el artículo 22.2.i) de la Ley 7/1985, de 2 abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local -LRBRL-, sin que tal atribución pueda ser objeto de delegación (art. 22.4 LRBRL).

Considerando que la aprobación de la plantilla orgánica debe seguir los mismos trámites que la aprobación del Presupuesto municipal, en virtud de lo previsto en el artículo 90.1 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local -LRBRL-, en concordancia con lo dispuesto en el artículo 126.3 del Real Decreto Legislativo 781/1986, de 18 de abril, por el que se aprueba el Texto Refundido de las Disposiciones Legales vigentes en materia de Régimen Local -TRRL-.

De conformidad con el dictamen elevado desde la Comisión Informativa de Organización y Hacienda, la abstención de los 4 concejales presentes de EAJ/PNV y el voto favorable de los 6 corporativos presentes de EH BILDU , el Pleno ACUERDA:

PRIMERO.- La aprobación inicial de la plantilla orgánica y la relación de puestos de trabajo correspondiente al ejercicio 2026, que se adjuntan como anexo 1 y 2.

ESKU1eca0f4c-2c2e-4e38-9a82-a78c02a4b0e8

SEGUNDO.- Publicar el acuerdo en el Boletín Oficial de Gipuzkoa por plazo de 15 días hábiles, al objeto de que los interesados puedan examinarlo y presentar las reclamaciones que consideren oportunas, ante el Ayuntamiento Pleno. Asimismo se publicará en el portal web municipal. En el caso de que en el plazo señalado no se presente ninguna reclamación o alegación, se entenderá definitivamente adoptado el acuerdo hasta entonces inicial, sin que por el Ayuntamiento Pleno deba adoptarse al efecto un nuevo acuerdo expreso.

## 6.- PRORROGA DEL CONTRATO DE PRESTACION DEL SERVICIO DE LIMPIEZA DE DIVERSOS EDIFICIOS PÚBLICOS Y LOCALES MUNICIPALES DE TITULARIDAD DEL AYUNTAMIENTO DE ESKORIATZA.

El Pleno de la Corporación, en sesión del día 27 de febrero de 2025 adoptó el acuerdo de adjudicar a HEMEN GARBIKETAK S.L.U. el contrato de PRESTACION DEL SERVICIO DE LIMPIEZA DE DIVERSOS EDIFICIOS PÚBLICOS Y LOCALES MUNICIPALES DE TITULARIDAD DEL AYUNTAMIENTO DE ESKORIATZA por los precios que a continuación se indicarán y con sujeción al resto de condiciones establecidas en el Pliego de Cláusulas Administrativas Particulares, así como a las especificaciones contenidas en la proposición del contratista.

Precio:

SERVICIOS OBLIGATORIOS: 218.920,70 €/año (IVA excluido), más 45.973,35 € correspondientes al 21. % de IVA.

Dicho importe, IVA no incluido, se desglosa de la siguiente manera por edificio:

| | |
|---|---|
| Luis Ezeiza Herri Eskola | 41.427,90 |
| Haurreskola ( incluye biblioteca | 15.906,00 |
| Kulunka Haurtzaindegia (edificio Octogonal | 16.629,00 |
| Ibarraundi Museoa | 10.802,83 |
| Zaldibar | 3.928,30 |
| Ludoteka | 6.000,90 |
| KIROLDEGIKO GARAJEAK | 771,20 |
| PILOTALEKUA | 12.212,68 |
| EPA | 2.422,05 |
| Elkarteen txokoa | 1.542,40 |
| Antigua estación | 2.385,90 |
| Local archivo | 289,20 |
| TORREBASKO KOMUN PUBLIKOAK | 1.789,43 |
| MUSIKA ESKOLA | 4.892,30 |

ESKU1eca0f4c-2c2e-4e38-9a82-a78c02a4b0e8

| | |
|---|---|
| KULTUR ETXEA | 7.880,70 |
| UDALETXEA | 15.231,20 |
| LIBURUTEGIA | 8.880,85 |
| KIROLDEGIA | 65.927,87 |

SERVICIOS OPCIONALES: (IVA no incluido)

| CENTRO | COSTO TOTAL AÑO |
|---|---|
| IBARRAUNDI MUSEOA | 4.048,80 |
| KIROLDEGIA | 13.471,90 |

Trabajos opcionales de puesta a punto de edificios municipales (IVA no incluido)

| CENTRO | COSTO SERVICIO |
|---|---|
| Ibarraundi | 72,30 |
| Zaldibar | 48,20 |
| Frontón | 289,20 |
| Viviendas municipales (por vivienda) | 289,20 |
| Casa Cultura | 72,30 |

La duración del presente contrato es de UN AÑO, a contar desde el 25 de marzo de 2020, terminando, por tanto, su vigencia el 24 de marzo de 2021. En cuanto a la prórroga del mismo se estará a los dispuesto en el Pliego de Condiciones Económico-Administrativas.

De acuerdo con la claúsula 3 del pliego de cláusulas administrativas particulares, y teniendo en cuenta lo dispuesto en el art. 29 de la Ley de Contratos del Sector Público, el plazo de duración del presente contrato será de 1 AÑO a contar desde el 25 de marzo de 2025 y podrá ser prorrogado por otros 4 años más sin que la duración total del mismo pueda exceder de CINCO AÑOS. Las prórrogas serán anuales y deberán ser acordadas expresamente por el órgano de contratación. Serán obligatorias para el empresario, siempre que su preaviso se produzca con dos meses de antelación a la finalización del plazo de duración del contrato y no concurra la circunstancia prevista en el último párrafo del apartado 2 del art. 29 de le LCSP2017.

De conformidad con la propuesta elevada desde la Comisión Informativa de Territorio y Desarrollo Sostenible y con el voto favorable de todos los corporativos presentes, el Pleno ACUERDA:

**PRIMERO.-** Prorrogar por periodo de UN AÑO el contrato adjudicado a HEMEN GARBIKETAK S.L.U para la prestación del SERVICIO DE LIMPIEZA DE DIVERSOS EDIFICIOS Y LOCALES MUNICIPALES DE TITULARIDAD DEL DEL AYUNTAMIENTO DE ESKORIATZA

**7.- MODIFICACION 4/2025 DEL PLAN ESTRATÉGICO DE SUBVENCIONES.**

ESKU1eca0f4c-2c2e-4e38-9a82-a78c02a4b0e8

El Ayuntamiento en Pleno, en sesión celebrada el 21 de diciembre de 2023, adoptó el acuerdo de aprobar el Plan Estratégico de Subvenciones 2024-2027.

Aprobado, se ha visto desde distintas áreas municipales la conveniencia de modificar algunas de las previsiones contempladas en su Anexo-2025, con el fin de ampliar o modificar el ámbito subjetivo y/ o objetivo de algunos de los programas de subvenciones de las diferentes LINEAS ESTRATEGICAS.

Vistas las propuestas y de conformidad con el dictamen elevado desde la Comisión Informativa de Cultura, Euskera, Juventud y Educación, el Pleno, por unanimidad, ACUERDA:

**PRIMERO.-** Incrementar en 530, 87 euros la asignación económica del siguiente programa de subvenciones de la LÍNEA ESTRATÉGICA 5: EUSKERA, quedando la consignación como se indica también a continuación:

A) DESCRIPCIÓN DEL PROGRAMA: subvenciones para el aprendizaje del euskera
DESTINATARIOS: personas empadronadas en el municipio de Eskoriatza que hayan cursado un curso de aprendizaje de euskera en el euskaltegi o barnetegi.
OBJETO: conceder ayudas económicas para la financiación de cursos de euskera.
EFECTO PRETENDIDO: fomentar el conocimiento del euskera
MODALIDAD DE CONCESION: concurrencia competitiva
COSTES PREVISIBLES: 2.230,87 €
FINANCIACIÓN: 0400.480.335.00.01 partida

## 8.- APROBACIÓN INICIAL Y EXPOSICIÓN PÚBLICA DEL PLAN LOCAL DE PROMOCIÓN DEL BIENESTAR EMOCIONAL Y PREVENCIÓN DE ADICCIONES 2026-2029. (Aretxabaleta-Eskoriatza)

De conformidad con el dictamen elevado desde la Comisión Informativa de Servicios Sociales y Deportes y el voto favorable de todos los corporativos presentes, el Pleno ACUERDA:

**Primero:** APROBAR inicialmente el Plan local de promoción del bienestar emocional y prevención de adicciones 2026-2029 (Aretxabaleta -Eskoriatza)

**Segundo:** Abrir un período de 30 días de información pública, contados a partir de día siguiente de la publicación del anuncio en el Boletín Oficial de Gipuzkoa, con el objeto de que cualquier persona física o jurídica pueda examinar el expediente en el área de servicios sociales del Ayuntamiento y presentar, en su caso, las alegaciones y sugerencias que estime oportunas.
De no producirse alegación ni sugerencia alguna el Plan ,se tendrá por aprobado definitivamente, sin necesidad de adoptar nuevo acuerdo.

## 9.- RUEGOS Y PREGUNTAS.

No se producen.

ESKU1eca0f4c-2c2e-4e38-9a82-a78c02a4b0e8

**Y no habiendo más asuntos que tratar, se levanta la sesión a las 18:12 horas del día de la fecha. De todo lo cual como Secretaria doy fe.**



**EKS | CSV: ESKU1eca0f4c-2c2e-4e38-9a82-a78c02a4b0e8**
*Egiaztatu dokumentu honen osotasuna eta sinadura hurrengo URL edo QR kodean sartuz: https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=03410*
*Compruebe la integridad y firma de este documento, accediendo a la siguiente URL o código QR: https://udal.egoitza.gipuzkoa.eus?De=03410*

# Sinaduren laburpena / Resumen de firmas

| Titulua / Título: | 2025IAKU0015-Osoko bilkurako akta ELE2/Acta del Pleno ELE2 (ESKORIATZAKO UDALA |
| --- | --- |

**Digitalki sinatua:**

eskoriatzako udala

**MIREN EDURNE ITURBE LASCURAIN**
**Idazkari-kontuhartzailea**
**Data:** 2025/12/22 12:08:17

**Digitalki sinatua:**

eskoriatzako udala

**EDORTA ZUBIZARRETA ALEGRIA**
**Alkatea**
**Data:** 2025/12/22 12:13:30